

### 63. EXTERNA RAIMUNDO DO SÜR (TELEFONOA) EGUNEZ

D. Luisa eta Ariana zain daude, auto zuriaren ondoan. Aurikularrak lepoan daramatzen gizona besoetan sei botila ur dakartzala agertu da.

Ariana: *Ura al da?*

Antropologoa: *Bai.*

Ariana: *Sekula ez dut ura erosten duen inor ikusi.*

Gizonak maletategian gorde ditu botilak.<sup>1</sup>

# TRADIZIOA, ITZULPENA ETA TRANSLITERAZIOA

Frederick Brandão

1 Iban Ayesta Aldanondoren *Itamatatiua: pez, piedra, río* lanaren gidoitik ateratako zatia. Moztu Filmak eta Sonora Estudios, 2008.

2 Bhabha, Homi K., *O Local da Cultura*. Itzultzaileak: Myriam Ávila, Eliana Lourenço de Lima Reis eta Gláucia Renate Gonçalves. Belo Horizonte: Editora UFMG, 1998.

Amaiera zoriontsu bat bilatzean, beti dugu eragozgarri bat tartean, zoriontasuna aurkitzeko aukera izan arren amaiera posiblerik ez izatea alegia. Itamatatiuako kilombo-komunitatearekin lehen hartu-emanan izan nuenetik ia-ia bost urte igaro diren honetan, hango jendeak eta paisaia argazkiz jasotzeko itzultzea pentsatu dut. Jakin badakit, baina, toki horri eta bertako jendeari buruzko testu bat osatzeko asmo oro espekulazio hutsa izango litzatekeela. Horregatik, itzulpena zeharo ireki eta akasduztzat planteatzen da; irekia, historia bat ezin delako amaitu, eta behatuak eta behatzaileak lotzen dituzten adiskidetasun edo gorrotzoko loturak eteten ez direlako. Lan bati berriro ekin eta horri buruz berriro idazten denean bai aldizkari baterako bai beste argitalpen mota baterako, topaketa berri bat gertatzen da; edo, «bisita hura» maitasunez, nostalgiaz, are errezeloaz ere atzera gogoratzean, ez gaude topaketa horretatik libre, ezta haiek beraiek ere; topaketan bizi gara, *topaketa bilatzen ari gara, topaketa nahi dugu... topaketa nahi dugu*<sup>2</sup>, amaierako puntua ez da testu bateko azken paragrafoa amaitzen denean jartzen.

Giza harremanetan dagoen aldakortasun elementua perfekziorik eza da, harreman horiek eraikinen eraikuntzak baitira, eta hauen emaitzak ez dira estereotipo hutsak, baizik eta bisitariaren eta bisitatuaren baldintzak itzultzen dituzten arketipoak. Eta bisitariak eta bisitatuak topaketatik gogobeteko dituen esanguraren bat ateratzeko duten igurikapenak hartu-emanari jarraipena ematera daramatza. Beti ez da, baina, kontu erraza izaten. Inperfekzioa erabat argi egotera sekula iristen ez diren ekintzetan datza. Begi-keinu bat betazalak ixte eta irekitze hutsa ote? Beste zerbait ere agian? Paranoia bat akaso. Giza harremanen aldaera eta motak nagusitu egiten zaizkio behaketari, eta behaketa bera narrazio den egoera bat ezartzen dute; autoreak eta aktoreak bilbeak garatzen dituzte, eta boterea lortzeko lehian aritzen dira bere kultur kodeen bidez.

Hortxe datza interpretazio edo itzulpen orori, hau ulertzen dugun modua dena dela, neurritz gain eragiten dion elementu askatzailea. Nire

iritziz ez da elementu finkatua, iraunkorra; oso bestela, aldatuz doan zer-baiten antzera ageri zaigu. Ikuspegi «ekologiko» batetik, kosta egiten zait pentsamenduak eta teoriak birziklatzen ez direla pentsatzea. «Topaketak» berritu egiten ditu giza harremanak, pertsonak edo taldeak desberdinak dira hartu-emanaren ondoren, eta aldaketak gogoetak eragiten ditu, hala maila kontzientean nola inkontzientean, are gatazkatsuak ere. Baina gertatzen dena zera da, dagoeneko gauza bera ez bada, beste bat dela, eta existitzeari uzten ez badio, bizirik segitzen duela; gauza desberdin bat gertatu da, zaharra aldatu egin da eta berria eguneroko beharretara egokitu da. Bizitzan guztia mutantea da, elkarrekintzan dihardu, moldatu egiten da. Esanaz gain, itzultzeko ezintasunak produzitzeko ezintasunik ez dakarrela adierazi behar dugu. Kulturaz gaindiko zineak modu positiboan ospatzen du ezintasun hori, bere artea kultur kode desberdinen arteko topaketatik abiatuak sortuz. Etnografo orok egiten duena transliterazioa da, gertakizun bidez edo narrazio moduan egin badezake, baina hau itzulpenzat eskaintzen den ikuspegiaren mendeko eraikuntzatzat aurkezten da; izan ere, ez du norbaitek itzultzen, norbaitezat baizik.

#### Tradizioa eta itzulpena

Itamatatiua, Brasil iparraldean kokatua, Brasil kolonialaren garaian bere lurra ordena erlijioso batetik jaso zituen kilombo-komunitate bat da. Komuna eran bizi dira, guztiek «de Jesús» abizena dute, eta Avilako Santa Teresarenganako jaieradunak dira. *Itamatatiua: pez, piedra, río* filma Brasil iparraldeko kilomboetako komunitate beltzen bizimoduaren itzulpena izango litzateke, kultur nortasunaren galera eman den egoera batean. Dokumentala, hiru urte behar izan dira filmatzeko, kilombo batera aldatu zen São Luíseko aldirietako neskato baten bizitzari buruzko fikzioa bihurtu da. Ildo honetatik, proiektua bertan sartutako pertsonak adina aldatu da.

Bost urte geroago, komunitatera itzuli naiz filmeko azken eszenak grabatzeko, eta aldaketak jaun eta jabe dira. Motorrak iritsi dira, eta paisaia goi-tentsioko linea, dorre eta klabeek kutsatuta dago. Zeramika fabrikazioaren kultura lokalak indarra galdu du azken urteotan zehar gazteenen artean, orain plastikozko ontzi arinak, usaingabe eta gustu gabekoak erabiltzen dituzte eta. Emakume taldetxo bat ari da, oraindik ere, eskulangintzako produktuak fabrikatzen, baina tradizio hori galtzen ari da gobernuaren erakundeek produkzioari laguntzeko ezarritako estandarizazio eta erreprodukzioagarritasun eskakizunak direla eta. Zeramika eta dantza herrikoiak berreskuratzeko ezinbestekoa da GKEen eta kultura bultzatzeko estatu-agentzien edo propaganda-agentzien bidez horiek berriro asmatzea. Filma bere bidea egiten ari da. Dagoeneko badira edizioz fikziozkoa baino gehiago dokumentala den bertsio baten kopiak. Bitxia bada ere, bertsio hau Santari buruzko filma izatetik Santaren filma izatera igaro da, eta kilomboan eta Itamatatiuako biztanleen senideak bizi diren São Luís hiriko aldirietan barrena banatu dute. Komunitateak ez bazuen ere kanpoaldearekin komunikatzeko modurik, isolatuta baitzegoen telefono, posta edo errepede erabilgarri eta seguru

3 Brandão, F.M.L., *O Encontro do Adeus: cinema transcultural em Itamatatiua*. São Luís, 2006.

ezagatik, orain bere festarik gogoangarrienaren, Santa Teresaren festaren erreregistro bat du film honetan.

Filmak «toki horretako irudiak» «beste toki batzuetara» eramango ditu, eta modu desberdinez ulertuko dute. Hari buruz idazten dugunean, ikuspegi berezi batetik heltzen diogu atzera topaketari. Erreproduktzioa eta banaketa beste ikuspegi batetik abiatzen da, gurea bezain desberdin eta originala den batetik.

### Translitalizazioa

Zer egiten du etnografoak? Autofedea? Nola idatzi begira duen eta bere uneoroko presentziari buruzko irudiak eta asoziazioak sortzen dituen norbaiti buruz? Kultur kodeak oztipoa dira errealtatea ulertzeko unean, baina landa-lanaren dinamika bera ere ethos bat ezartzen duen kultur kode bat da, eta ulertze hori eragozten du era berean. Etnografoa eskizofreniko samarra da beste pertsona bat izaten, beste mundu batean egoten saiatzen denean, etengabe ari delarik oroitzapenen eta errealean kontzentratu beharraren artean nabigatzen. Dena gogoratzen den mundu batean, komunitate horien ahozko tradizioa oroimen kolektiboa da, ipuin, elezahar, sorburuari buruzko kontakizun, kantu, olerki eta ama, zahar eta haurren ahoan egunero errealearen metafora bat egiten duten historia sinesgaitzen bidez transmititua. Historia horiek eta jendea eta tradizioa ahaztea da komunaren kulturarentzako mehatxurik handiena. Zein da arrazionalizazioaren espazioa, hau berau gizarte joko barneratzeko prozesu inkontzienteen paraleloan doanean? Bizitza komuneko gorabeherak gertakizun edo narrazio moduan kontatzea? Eleberririk bat idaztea, dokumental bat edo fikzio bat egitea? Itzulpen orok ikuspegi bat eskaintzen du, begirada bat, apenas besterik, ez baita bestea, hau itzulpezina da eta; hitzak hizkuntza batetik bestera igarotzen ditugu, besterik gabe, ez dago konklusorik, ez amaierarik, aukeratzen eta aldizkari eta biltzarretan aurkezten diren posibilitateak baizik. Eta nola erreakzionatzen da ikerlarien herentziaren aurrean? Kultura lokala ikerlarien kultura unibertsalera itzultze horiez kultur kodeek egiten duten interpretazioan bezala. Jabetze hitza gogora datorkigu, sarri, kontu honetak ari garenean; alabaina, eginkizunak eta jarduerak erlatibizatu beharra dago. Ba al da lehen bertsiorik? Zein jabetzen da zertaz? Egia zera da, produktuek sorburu dituzten gizarte taldeen irudikapenak iradokitzen dituztela, eta hala eta guztiz produktu bat, gauza bat, izaten jarraitzen dutela. Monografia antropologikoa, unibertsitateko apalategietan ongi ezkutatuta ez badago, askatu egiten da, hainbat modutan ulertua izateko. Azkenean, kultur kodea da itzulpenari zentzua ematen diona. Horrela, filma, monografia, artikulua, argazkia produktio gisa, aske dira edozein itzulpenetan (traiziotan) sortzen diren beharrak artatzeko.

Zinearen eta Itamatatiuako komunitatearen arteko topaketa «agurra-erekiko, sekula aienatzen ez den abiatzearen oroitzapenarekiko topaketa»<sup>3</sup> bat izan zen. Hurrengo topaketetan deskubritzeko dago, oraindik ere, horrek guztiak haiantzat zein esanahi izan duen...

—*Fig. 1*—